



Ikaskuntza kooperatiboa. Ikasgelarako proposamen zehatza: IK/KI programa.



15.Feb - 18.Mar 2016

Cód. 117-16

Mod.:
Online

Edición
2016

Tipo de actividad
Curso online de larga duración

Fecha
15.Feb - 18.Mar 2016

Idiomas
Español

DIRECCIÓN

Jose María Arakama Karrera, LASARTEKO BERRITZEGUNEA

Comité Organizador

Fundación
BBVA



Descripción

Irakasleak:

Oskar Viguera

Lasarte-Oriako Berritzeguneko zuzendaria

Ane Garate

Berastegiko J.A. Muñagorri Herri Ikastetxeko zuzendaria eta bertako IK/KI Programaren koordinatzailea.

Pello Agirrezabalo

Tolosako Hirukide Ikastetxeko irakaslea eta bertako IK/KI Programaren koordinatzailea.

Joxemari Arakama

Lasarte-Oriako Berritzeguneko aholkularia eta bertako IK/KI Programaren Mintegiko koordinatzailea.

Balio akademikoa:

- 30 ordu. UPV/EHU. Udako Ikastaroak.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Baliozkotzea (1568170037 kod.).

Matrikula prezioa: 80.00 €

Matrikula: <http://admin.udaikastaroakehu.eus/matriculation>

Iraupena:

- 30 ordu 4 aste lektibotan (asteko 7-8 orduko dedikazioa).
- Gehi aste 1 ikastaroa amaitzeko eta ebaluaziorako.

Helburuak:

Egungo Gizarteak Hezkuntzari ezartzen dizkion erronka berriei buruz hausnartzea eta, horien aurrean, kooperazioa, elkarrekintza eta metodologia aktiboa indarrean jartzeko baliabide zehatzak ezagutzea.

Ø Ikaskuntza Kooperatiboa ezagutzea eta metodologia tradizionalarekin alderatzea: etorkizuna Vs iragana.

Ø Ikaskuntza Kooperatiboa ikasgelan aplikatzeko proposamen bat taxuz ezagutzea: IK/KI.

Ø IK/KIren baliabideak, aplikazio faseak, txantiloak, ikasleen taldekatzeko era eta gainerakoen ezaguera egitea.

Hizkuntza:

Komunikazio-hizkuntza: euskara.

Materialak: testu nagusia euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko da. Testu osagarriak, idatzita dauden hizkuntzan (gaztelaniaz gehienak). Bideoak: gaztelaniaz, gehien bat.

Metodologia:

Gai bakoitzak bere atazak ditu:

- Dagokion bideo-zatia ikusi.
- Testua(k) irakurri.
- Foroetan parte hartu: gai bakoitzak bere foroa izango du. Ikastaroa gaindituztat emateko, derrigorrezkoa da zabalduetako foro guztietan ekarpen esanguratsuak egitea.
- Programaren aplikazioaren simulazioa prestatu.

Aukera duten ikasketariei - batez ere, irakaskuntzan ari direnei- nork bere ikasgela barruan dinamikaren bat (2. gaia) edo egituraren bat (3. gaia) aplikatzeko proposatuko zaie.

PROGRAMA

Aurkezpena:

Ikastaroa hau, Ikaskuntza Kooperatiboaren II. Sinposioaren ondorena da.

Berau, 2013ko ekainaren 27-28an garatu zen Donostian, EHUko Uda Ikastaroen barruan, Gipuzkoako Berritzeguneek antolatuta. Bere ezaugarrien artean hauek dira aipagarrienak:

- Ikaskuntza Kooperatiboa ikasgelan aplikatzen duten irakasleen informazio-trukerako elkargunea izan zen.
- Hezkuntza-Etapa hauen inguruan: Haur Hezkuntza, Lehen hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza, irakas-arlo gehienak (hizkuntza, matematika, aintzat hartuta).
- Matrikula arrakastatsua: 350 parte-hartzaile, beste 150 kanpoan utzi behar izan zelarik.
- Hainbat erkidegotako irakasleak: Catalunya, Galiza, Aragoi, Comunidad Valenciana, Madril, Albacete, etab.
- Ponentzia, komunikazio eta esperientzia ugari erakutsi ziren (100dik gora).

Baina, aurreko ezaugarri horien gainetik bada nabarmendu beharreko bat, hau da, ezaugarri guztiei lotura ematen dien bizkar-hezurra: Ikasteko Kooperatu eta Kooperatzen Ikasi -IK/KI Programa (jatorrizko izena: Cooperar para Aprender y Aprender a Cooperar CA/AC.).

CA/AC Programa VICeko Unibertsitatetik datorkigu, eta Pere Pujolàs eta José Ramón Lago irakasleen gidaritzapean zabalkunde aipagarria izan du hainbat herrialdetan, gurean ere bai. Izan ere, II. Sinposioa Donostian egin izana ez da kasualitatea (lehenengoa VIC hirian izan zen); aitzitik, Gipuzkoako Berritzeguneek egindako zabaltze-lan txalogarriaren eta paregabearen isla baizik.

Hori egiaztatzeko, IK/KI Programa bere egin duten ikastetxe-kopurua ikustea besterik ez dago: 200 ikastetxe inguru gure Erkidegoan (130en bat gipuzkoarrak). Lurra horren ondo landuta, ez da, beraz, harritzekoa II. Sinposioa horren arrakastatsua gertatu izana.

Hala ere, ikastaro honen helburu nagusia ez da Sinposioak emandakoan murgiltzea, baizik eta, IK/KI Programa ezagutzea eta aplikazio praktikorako urratsez jabetzea, beti ere, ikastetxearen eremua aintzat hartuta. Noski, Sinposioko materiala ez da inola ere baztertuko, alboan - osagarri moduan- izango dugularik, beti.

Aplikazio praktikoari dagokionean, benetan praktikoa dela esan behar da: faseak eta urratsak ongi markatuak, kontsulta-materialak, txantiloak, estekak etab. Eta, hori, onuragarria da, zeren, ikastaroa amaitzean, ikasketariak garbi samar eduki beharko luke zer-nola eta noiz aplikatu IK/KI.

Esan da, jada, zein den ikastaro honen helburua; ez ordea, ikastarotik haratago doana. Hitz gutxi behar dira azken hau adierazteko, hona: ikasleek gehiago eta hobeto ikasi dezatela eta irakasleok gehiago eta hobeto irakats dezagula. Ez da nolanhiko erronka, baina ezin zaio ezikusiarena egin, gure gizartearen eskakizun berriei bizkarra ez emateak horren atzetik jarrarazten gaitu abian. Gainera, helburu lorgarria da; frogak bistan daude, II. Sinposioan erakutsitako han eta hemengo ekintza errealak, esate baterako eta, nola ez, gure eremuan ehunka irakaslek aurrera daramaten hezkuntza-aldaketa ikaskuntza kooperatiboaren eskutik.

Helburuak zer edo zer eskatzen digu irakasleoi: berrikuntzaren alde egitea, metodologiaren berrikuntzaren alde, hain zuzen ere. Ikaskuntza Kooperatiboak, IK/KI Programaren bidez, aukera horixe eskaintzen digu bada, eta modu oso eramangarrian, gainera. Izanez ere, programa hau ez da zaila, eta era progresiboan jarri daiteke indarrean; hau da, **“Txikitik Handira”**.

1. Gaia: Justifikazioa eta oinarri teorikoa

- Ikaskuntza Kooperatiboaren aldeko oinarri teorikoa. Autoreak.
- Inklusioa du ardatz.
- Oinarrizko gaitasunekin duen lotura eta berorien lanketa naturala.
- Irakaslearen rol berria.

2. Gaia: Ikastaldeko kohesioa lantzeko dinamika kooperatiboaren multzoa. IK/KI Programaren A eremua:

- Ikastaldearen kohesioa diagnostikatzeko prozedura eta materialak.
- Kohesioaren 5 eremuetan esku-hartzeko dinamikak.
- Irakasleen hausnarketarako baliabideak (txantiloiak).
- Aukera izanez gero, era esperimentalean, dinamikaren bat ikasgelan aplikatzeko proposatzen da. Horretarako astebeteko tartea utziko da.

3. Gaia: Arloetako edukiak lantzeko eta ikasteko, prozedura kooperatiboaren sorta (ikasteko kooperatu). IK/KI Programaren B eremua:

- Irakasleen lan-taldeak eratzeko irizpideak
- Egitura kooperatiboak eta teknika kooperatiboak eduki zehatzak lantzeko eta ikasteko.
- Ohiko unitate didaktikoan egitura kooperatiboak txertatzea.
- Aukera izanez gero, era esperimentalean, egituraren bat ikasgelan aplikatzeko proposatzen da. Horretarako astebeteko tartea utziko da.

4. Gaia: Kooperatzea bera helburu bihurtzea (kooperatzen ikasi). IK/KI Programaren C eremua:

- Talde-Planak.

- Lan kooperatiboaren ebaluazioa.
- Errubrikak.

5. Gaia: IK/KI Programaren eragina ikastetxeko berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuetan.

- Ikastetxean IK/KI Programa zabaltzeko eta finkatzeko prozedura.
- Berrikuntza eramangarria: “Txikitik Handira”
- Programaren arrakastarako baldintzak, praktika onak eta gomendioak: “Uneak eta Guneak”.
- Hobekuntza Planaren, Ikasturteko Planaren eta Berriztatze eta Formazio Proiektuen garrantzia.

Ebaluazioa eta ziurtagiria:

Ikastaroaren ebaluazioa ondorengo jardueretan oinarrituko da:

- Bideoa ikustea.
- Testuak irakurtzea.
- Gai bakoitzarekin lotutako atazak egitea.
- Foroetan parte hartu: gai bakoitzak bere foroa izango du. Ikastaroa gainditutzat emateko, derrigorrezkoa da zabaldutako foro guztietan ekarpen esanguratsuak egitea.

Agiriak

Ebaluazio atalean zerrendatutako jarduerak oinarritzotzat jotzen dira honako ziurtagiriak eskuratu ahal izateko:

- EHUko Udako Ikastaroen Fundazioak emana, Onura-Agiria.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandakoa.

Dirigido por:



Jose María Arakama Karrera

LASARTEKO BERRITZEGUNEA

Lehen Hezkuntzako maisu 1979z geroztik. Karguak ikastetxean: zuzendari, ikasketa buru, idazkari, zikloko koordinatzaile. Baita ere, hizkuntz normalizaziorako arduradun tekniko (HNAT), IKT teknologia berrietako arduradun, berrikuntza eta prestakuntza proiektuen arduradun. 2007/09/01tik 2017/08/31ra, Lasarteko Berritzeguneko aholkulari. 2017/09/01etik aurrera, Hezkuntza-ikuskari